

## **2017KO ZEMENDIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko zemendiaren 30ean, 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna, EAJ-PNV
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV).
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- - JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GERENÑO jauna (EAJ-PNV) zinegotzia ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotzietan deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2017KO URRIAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotzietan 2017ko urriaren 26an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietan akta hori aho batez onartu dabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

334/2017.- *Auzi jartzaile bateri 109,46 euro ordaintzea.*

335/2017.- *Bakioko Udalaren titularitateko kontsumo guneetako energia elektrikoaren hornidura kontratua GOIENER, S. COOP., enpreari esleitzea.*

336/2017.- *GarbiBakiori abal bi itzultzea.*

337/2017.- *Food truck bat iminteko udal lizentzia eta baldintzak.*

338/2017.- *Gabialdi enpresari abal bi itzultzea.*

339/2017.- *Kitapen baten obligazioa onartzea.*

340/2017.- *Bakioko Udala auzi batera bertaratzea eta horretarako abokatu eta prokuradorea izentzea.*

341/2017.- *Oktober jaia egiteko udal baimena.*

342/2017.- *Frontoian bazkaria egiteko udal baimena.*

343/2017.- *Ikasgela Irekiaren proiektua onartzea.*

344/2017.- *Bitarteko funtzionarioa izendatzea.*

345/2017.- *Aseguru polizak kudeatzeko beste eranskin bat onartzea.*

346/2017.- *Nominak ordaintzeko ebazpena.*

347/2017.- *Garbialdi enpresari udal eraikin batzuk garbitzeko kontratua esleitzea.*

348/2017.- *GarbiBakio enpresari udal eraikin batzuk garbitzeko kontratua esleitzea.*

349/2017.- *Bizkaiko Foru Aldundiari obra lizentzia emotea, Eneperitik Gaztelugatxeraino doan oinezkoentzako bidea hobetzeko.*

350/2017.- *Euskaltel enpresari kontratu txikia esleitzea.*

351/2017.- *Errotuz enpresari kontratu txikia esleitzea.*

352/2017.- *Kitapen baten obligazioa onartzea.*

353/2017.- *Kitapen baten obligazioa onartzea.*

354/2017.- *Surf txapelketa egiteko udal baimena.*

355/2017.- *ICAZA enpresari abal bat itzultzea.*

356/2017.- *Notario ahalordea emotea abokatu eta prokuradore batzuei, Bakioko Udala ordezkatu daien.*

357/2017.- *Kredituak gaitzeko ebazpena.*

358/2017.- *TECYR CONSTRUCCIONES Y REPARACIONES, S.A. (TECYRSA) enpreseari beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskatzea.*

359/2017.- *Herri jabaria mahai eta aulkiekin okupatzeagatiko tasaren 2017ko zerga errolda onestea.*

360/2017.- *Ibarratorre kalean esku hartzeko obraren diru-laguntza onartzea.*

361/2017.- *GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS enpresari zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.*

362/2017.- *Bizitza bateko etxea egiteko lizentzia emotea.*

363/2017.- *Eraikin bat sendotzeko lanak egiteko lizentzia emotea.*

364/2017.- *Megafonia lagatzeko baimena.*

365/2017.- *Pabiloi bat behera botateko lizentzia.*

366/2017.- *Fakturen obligazioak onartzea.*

367/2017.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

368/2017.- *Lonja bat banatzeko udal baimena emotea .*

369/2017.- *Perkusio tailerra egiteko baimena.*

370/2017.- *Lapikokoen eguna egiteko udal baimena.*

371/2017.- *Kitapen baten obligazioa onartzea.*

Amets Jauregizar alkate andreak dekretu honeen ganeko azalpenak emon dauz:

335/2017.- Bakioko Udalaren titularitateko kontsumo guneetako energia elektrikoaren hornidura kontratua GOIENER, S. COOP. enpreseari esleitu jako, txosten teknikoaren arabera bere eskaintza onena izan dalako, beti be aurkeztu diran beste bi lizitatzailen

aldean. Kontratuaren iraupena urtebetekoa da, baina beste urtebete luzatzeko aukerea dago.

340/2017.- Gaia: Bakioko Udala auzi batera bertaratzea eta horretarako abokatu eta prokuradorea izentzea. Expomotor S.L. enpreseak EAeko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioagazko Salan auzi-demanda aurkeztu dau, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzaren Eusko Jaurlaritzako Sailburuordearen 2017.05.10eko Aginduaren aurka. Udalak, dekretu horren bidez, erabagi dauana da 1138/2017 zenbakidun judizino horretan aurkezteko abokatuak eta prokuradorea izendatzea, emongo dan epaiak udalari eragin ahal dcutsolako.

349/2017.- Bizkaiko Foru Aldundiari obra lizentzia emon jako, Eneperitik Gaztelugatxeraino doan oinezkoentzako bidea hobetzeko.

351/2017.- Bizkaiko Foru Aldundiko Mendien Zerbitzuak 2017ko hobekuntza plangintzaren barruan, behar hau egitea onartu dau: Bakioko jaubetzako 46 zk. Erabilera Publikoko Mendiaren ordenazino plangintza. Behar hori *Errotuz* izeneko enpreseari esleitu jako eta horren ordainez 14.701,50 euro ordainduko jako, Bakiok Foru Aldundiko Mendien Zerbitzuan daukan hobekuntza funtsaren pentzura.

358/2017.- “Aitz-Gane” inguruko ezponda egonkortzeko obrak esleitzeko izapidetutako prozeduraren barruan, lizitatzailleen artean TECYR CONSTRUCCIONES Y REPARACIONES, S.A. (TECYRSA) enpreseak eskaintza onena egin eban ezker, beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskatu ostean, aurkeztu eban. Beraz, ondorioz, obren kontratua berari esleitu jako.


361/2017.- GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS enpreseari zerbitzuen kontratu txikia adjudikatu jako, beharraren prezioa 9.000,00 euro izanik gehi BEZa. Burutzapen epea sei hilabetekoa izango da 2017ko zemendiaren 14tik kontetan hasita. Beharraren helburua hauxe da: Bakioko Udaleko informazio geografikoa hobetzeko udal mapa digitala, Web Bisorea eta GIS Korporatiboa egitea.

### **3.- 2017 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUARI BURUZKO 9. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTU, BETI BE KREDITUEN TRANSFERENTZIAREN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.**


Kreditu transferentziaren nondik-norakoa:

#### **KREDITUAK TRANSFERITZEKO PROPOSAMENA**

**Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)**



**Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)**



Ametz Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horrerri buruzko azalpenak emon dauzan ezkeru, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezkeru be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2017 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 9. aldarazpen espediente onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

**4.- 2017KO HIRUGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 28. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMOTEA.**

5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua araberu, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko zemendiaren 6ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2017ko hirugarren hiruhilekoari jagokon berankortasuneran datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren araberu:

<b>HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETA</b>	
<i>Ordaindu diran legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe barruan</i>
475.368,02€	240 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diran legezko epeetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe kanpora</i>
11.482,60 €	6 ordainketa kopuru

**HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK**

<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
<i>143.950,81€</i>	<i>2.190,84 €</i>

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2017ko hirugarren hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea hauxe izan da: -9,41 egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

#### **5.- 2017KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, IRAILAREN 30RA ARTEKO EPEARI JAGOKONEZ.**

Aitatutako gaia dala-eta zinegotziek horri buruzko agiria daukien ezker, horren barri emon da, beste barik.

#### **6.- ABENDUAREN 3KO EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA DALA ETA, EUSKEREAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALARI ATXIKIMENDUA ADIERAZO, HALA BEHAR BALITZ.**

Lehenengo eta behin, Ametz Jauregizar alkate andreak adierazpen horren testua irakurri dau, edukia hauxe izanik:

#### ***Euskaraz bizi nahi dugulako, Euskarak lankide behar gaitu, urtean 365 egunez***

*Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu ilusioaren hauspoaz haize berria emateko, indar berriz sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu: euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan. Eta horretarako ilusioa eta elkarlana ezinbestekoak dira.*

*Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak: euskaldun berri andana itzela, seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi duten guraso erdaldunak, euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak...*

*Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen ezagutza handitzearekin batera, euskaraz bizitzeko ohitura zabaldu nahi dugu. Horretarako, une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko. Eta une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzaz ere berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Bakarka ezinezkoa baita.*

*Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Ba, euskal hiztun bakar batek ere nekez aldatuko ditu hizkuntza-ohiturak, gizartearen babesik izan ezean; hizkuntza-ohituren aldaketa kolektiboa izango da ala ez da izango. Denok gara beharrezkoak, euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak zein erdaldunak. Auzolana delako bide bakarra.*

***Horregatik guztiagatik, Bakioko Udalak abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunari begira ondorengo konpromisoak hartu nahi ditu:***

- *Urtean 365 egunez euskaraz bizi nahi dugun herritarron komunitatea handitzeko egitasmoak, eskaerak, aldarrikapenak, festak... sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.*
- *Auzolana bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu gure herriko agenteen arteko egunerokoan euskararen erabilera sustatzeko, baita euskararen lurralde osoko erakunde, instituzio, eta eragileen arteko elkarlana eta inplikazioa bultzatzeko ere.*

*Horren adierazle, udal eraikinetan “Euskaraz Bizi Nahi Dut” mezua jarri dugu, gure konpromisoa adierazteko euskaraz normaltasunez bizitzea helburu duten ekimenekin.*

Segiduan, zinegotziek botoa emon dabe. Halanda ze, Bakioko Udaltzarak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), hauxe erabagi dau: **abenduaren 3an euskarearen nazioarteko eguna dala-eta transkribatutako adierazpen instituzionala onartzea.**

## **7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Inork ez dau egin eskaerarik edo galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:25ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria